



1HI-026/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN  
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZAKO  
ATALEKO IDAZKARIAK.


ZIURTATZEN DUT: ekainaren 8an Arabako Hirigintza Plangintzako atalak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Aiarako udalerriko Arau Subsidiarioen 2. aldatetako espedientearen txostena egin da –lurzoru urbanizaezineko ekipamendu erabilerari eta hirigintza-parametroei dagokien aldaketa da, hain zuzen ere–. Honakoa hartu da kontuan:

- Nerbioi ibaiaren ur-bazterrean dagoen Luxaondoko “autoeskola” lurzoru urbanizaezineko hezkuntza-ekipamendurako proposatzen den mugekiko distantzia murrizteari dagokionez, bertan eraikin bat onartuko bada, nahitaez bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (isurialde kantauriarra) ezartzen duen berariazko araudia, batik bat landa-esparruetako ertzetarako (F.1 idatz-zatia) eta urpean gera daitezkeen zonetarako (E.1 idatz-zatia) ezartzen dena. Hortaz, aldaketa-dokumentuan zirkunstantzia hori jasoarazi beharko da.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 8an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea.